

"Father-en aferak"

Felipe Uriarte

1 990ko udazkenean ezagutu nuen Silvo Karo esloveniarrak Sagarmathako beheko kanpamenduan eta adiskidetasun samurra sortu zen gure artean. Horregatik Baghirathiko kanpamendura iristerakoan eta konturatzekoan nirekin hitz egiten ari zen mutil xuabe eta apal hura, bisera eta betaurreko beltzen azpian izkutaturik, Silvo bera zela, egundoko poza jaso nuen.

Tea hartzen genuen bitartean Silvok hizketa gozoari ekin zion, eta bere azken eskaladetak egiten genizkion galderei hitz jario kriptikoz erantzuten zigun, parra txiki bat tartekatzen zuelarik. Laister giro samurra eta alaia osotu zen toldo puxka haren azpian, beheko kanpamendu berri hartako lehen te katilu beroa esku hotzetan biltzen genuelarik.

Halako batean toldoa altxatu eta gizon gazte bat, ia karraxika, Txinguri zuzendu zitzaion:

– Indian Mounteneering Foundationen hartutako agirian, zuen baimenak irailak 25 arte irauten du, berriz zuek ekartzen dituzuen paperetan urriak 25 arte luzatzen da. Ezin liteke. ¡Arazo handia da!

Zalantzarik ez zegoen, gure Liason Officierra zen.

– Aizu, mesedez, moztu nion, gure lagun esloveniarrarekin ari gara te hartzen. Pakean utzi. Beranduago argituko dugu arazo hori. Mr. Elke, gure Liason Officierra, gizon bizkorra eta animosoa gertatu zen, eta gure lehen hartueman hura zakarra izan arren, handik aurrera elkarganako jarrera gozoa eta arina suertatu zitzaigun.

Gaba hartantxe, eta afaltzen ari ginela, zuzen begiratu eta galdetu zidan:

– Aizu, barkatu, zenbat urte duzu?

– Hainbeste, nik erantzun.

– Gure aita bezala! Eta nola okurriritu zaizu Bhagirathira etortzea?

Pentsatu behar izan nuen erantzuna:



Equipo completo en el C. Base.

Cima del Bhagirathi III (6.454 m.). Al fondo a la dcha. el Bhagirathi I.



– ... Mendi ederra da, aukeratu dugun bidea zuzena eta dotorea, ... eta Indiako paraje hau bezalakorik ez dago mundu osoan.

Hurrengo goizean eta beheko kanpamenduen tradizio zaharrari eutsiz, ez nuen sudurra lo sakutik atera eguzkiak nere dendan gogoz jo zuen arte. Jan-dendako atearen ondoan Mr. Elke bizkor agurtu zidan, militarrekin ohi duten antzera, esku bat kopetera altxatuz:

– Good morning "Father (aita)!!!, bi orpoka elkar jotzen zituelarik.



Alegria en la cima del Bhagirathi III el 21 de septiembre.

Handik aurrera eta espediziokide guztientzat "father"-a izan nintzen. Mr. Elke jarritako ezizena hartara lehiala izatea iruditu zait eta horretarako aholku eta ohar batzuk plazaratu nahi dut; noski, father guztien aholku oro bezala, txotxeatzen hasi denaren burutazioak bezala hartuak izango direlaren konbenzimentuaz.

Dena den, kokatu ditzagun komentariok bere leku propioan: Himalaia, eskalada klasiko bat, saio arina; hau da Alpeetako igoera bat, sei mila metrotan burututa.

Material pertsonala

Bhagirathi IIIko paretan sartu baino lehen material pertsonalaren detaileak zehazteak gure elkarhizketen denbora luzea bete zuen. Zalantzak eta eztabaidak norberaren baitan luzatu ziren igoeraren bezperetan: kaltzontzilo luzeak bai ala ez; txamarra lodia edo goretex simplea, ... orduan hobe kamiseta lodi bat eramaten baldin badut, ... Azkenean, hirurok antzeko zerranda osotu genuen: Lo saku arina; foama; prakak polarrak eta tx-

keta; propilenoak 2 kamiseta; galtzerdi pare bat; galtzerdi polar pare bat (lo egiteko); txanoa; Goretex peto eta txamarra arina; eskularru polar pare bat; lifa eskularru pare bat; thinsulate eskularru polar pare bat; frontala; pila alkalina bat; betaurrekoak; plastikozko botak; katuak; polain pare bat.

la igoera osoa jantzi guztiak jantzita eskalatu genuen eta azken bi gabetan hotza sentitu genuen.

Paretako denda

Hiruko paretadenda bat eraman genuen, eta nahiz eta ia bibak guztietan baten bati kanpoan lo egitea tokatu zitzaion, garrantzi handiko elementoa izan zen horman antolatzen genuen gure bizimoduan.

Sukaldea

Markill etxeko Stormix sukaldea eraman genuen eta Epigasa erregai antzera. Gomazko tuboa duen Stormixa erabili genuen, baina ez nuke berriz halako igoera baterako modelo hori eramango: tubo errez puzkatzen da, eta nahiz eta konpontzea zaila ez du, hobe gertatzen ez ba zaigu.

Estrenatu gabeko sukaldea eramatea problemak ekar ditzake: berria bai, baina erabili dugula eta roskak eta itxidurak ondo dabilzate konprobatuak.

Oso gutxi edan genuen igoera honetan: 1,5 litro / eguneko-pertsonako. Arrazoiak: bibaken kokapen eskasiarengatik eta sukalde hauek duten errendimendu pitalarengatik. Azken egunean oso nekaturik sentitu ginela eta iruditzen zait gutxi edate horrek eragin zuzena izan zuela gure forman.

Epigas botelak: 1 handia, 1 erdikoa.

Elikadura

Oloa (instantanea); esne hautsa; colacao; infusioak; kakahueteak; almendrak; barra energetikoak (2 barra/egun-pertsona); urdaiazpikoa gazta; yema turroia (Txinguren izebak oparitutakoa); arroz zuria liofilizatua (3 egun); fideoak (2 minutokoak); flectomina; zopa (1 egunero); levadura hautsez; eta noski perexila.